

# Gotzon Garate, gure irakaslea

**H** antxe zetorren ostiraletan, etseko zapatilak eta Lee praka bakeroak jantzita, besapean gitarra zekarrela, eskola ematera. Lehen aldiz, harridura aurpegietan, gero poza. Eta guztiok kantari bihurtzen ginenaldi baterako.

*"Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia,  
Beram gibelean baitut nik herria;  
Jadamik dut aditzen, zorion handia!"*

*"Ezkila maitearen hasperen ezia"*  
Zein gozoak ziren ostiral haiek. Eta azterketak ere beste-lakoak ziren. Ikasten zenuen gogoz, euskararekiko maitasuna baizik ez zigun kutsatzen. Behin, ez dakigu zein baserritan galdurik zebiltzala, ahaztu zitzaizun gurekin adostuta zeukan azterketa dantsua. Hurrengo egunean, atean, ohar polita genuen zain: "Oso jatorrak zaretelako aprobata duzue". Eta gi, pozik berriz.

Baina, Gotzon, hau eta gehiago zen. Batez ere gizon zintzoa, apala eta maitagarria, eta nola ez, euskaltzale sutsua.

Gotzon Garate, Elgoibarko jostun baten hamaika seme-alabaren artean gazteena zen, 1934ko irailean lehenean sortua.

Literaturam hainbat alor jorratuta, obra oparoa utzi du Deustuko irakasleak. Literaturan narrazio gintza eta eleberrigintza landu zituen; besteak beste, nobela beltza euskaraz lantzen aitzindarietako bat izan zen. *Esku leuna* (1977) izan zen argitaratu zuen aurreneko nobela, eta Bilbon girotutako *Izuri berria* (1981) irakurriena. Hasier Etxeberriak, *Jakin* aldizkariako, irakurri beharreko elkarriketa luze, mamitsu eta gozo bat egin zion 2005ean. Berak bertan, "bost polizia eleberririk idatzi ditut; kontuan hartuta hogeita hamar liburua baino gehiago idatzi ditudala, ez dira asko ere" adierazi zuen.

Saiakerak, ipuinak, nobelak idatzi zituen, baita kronika ederrak ere, *New York, New York* (1988) gogoangarria bezalakoak.

Gotzon Garateren gomutan, bererhu nobela eta bi ipuin liburu osorik eskaintzen ditu Armiarnak interneten: *Esku leuna* (1977), *Elizondoko eskutitza* (1977), *Lehortean* (1979), *Aldar-te oneko ipuinak* (1982) eta *Alaba* (1984).

## Asotitzak

Baina bere lan askoren artean bat gailentzen da, zaila izango baita hau baino bilduma hoberik egitea, atzean izan duen jardun maudlagatik: *Asotitzak* lan horretan 27.000 gora asotitz bildu dira.

Euskal Herriko baserrietan barrena egindako kanpo-ikerlan ikaragarria egin zuen Gotzon Garatek azken hogeita hamar urteotan zehar. Lan horretatik sortu ziren 14.458 euskal asotitz. Eta gero 14.458 asotitzok nola esaten diren espainolez, ingelesez eta latinez jarri zuten, edo nahi baduzue, 5.208 espainol asotitz eta nola esaten diren euskaraz, ingelesez eta latinez; 4.045 ingeles asotitz eta nola esaten diren euskaraz, es-



Gotzon Garate (Elgoibar, 1934-Bilbao, 2008)



*New York hiri handikoa,  
Xiberun baserrikoa...  
Gotzon, mundu bat sortu zenuen  
geueneurrikoa.*

*Behorrek maite moxala  
irudi unibersala.  
Jabetu zaitez zu joatean  
gelditu gerala  
"behia am bogarren txahala"  
baldin bagina bezala.  
Poz bat badugu zure iturritik  
non edan badala*

## Iratzeder

Gotzon Garateren ostan ere Xabier Diharce, *Iratzeder* euskaltzain osoa hil zen Beloken, 88 urte zituela.

Idazle porrokatu hau Donibane Lohizunen jaio zen, 1920ko urtarilaren 4an. Uztaritzen eta Baionako Seminarioetan egin zituen apaiz ikasketak. Hogeita bat urte zituela, Belokeko beneditarren komenturajoan zen. Lau urte geroago, 1945ean, bertan apeztu zen. 1948tik 1968 arte beneditar nobizioen maisu izan zen; gero priore eta 1972an abade izendatu zuten. Hamabost urte izan zen Belokeko abade. Gero, 67 urte zituela, 1987an, Afrikara joan zen, Dahomey estatuko Zagnanado komentura, baina hamazazpi hilabete besterik ez zituen bertan eman, eta berriro Belokera itzuli zen. Hor bizi izan da azken arnasa hartu arte.

Hamabi urte zituela hasi zen Iratzeder lehen letrak euskaraz idatzen. Berak behin baino gehiagotan kontatu izan duenez, adin horrekin aitarengana jo zuten eta apaiza izan nahi zuela

esan zion. Aitak, ordea, horretarako euskara nahikoa ez zekiela erantzun zion. Eta egun hartan hasi zen Iratzeder bere euskara hobetzen. Ahal zituen euskal kanta guztiak ikasteari ekin zion orduan, 250 kanta inguru ikasi zituen. Eta, ikasi ahal, olerkiak egiteko gogoia piztu zitzaion.

Uztartzeko seminarioan sartu zenean, 13 urteko mutikoa zela, Lafittek hartu zuen meza-laguntzaile eta berak irakatsi zion bertsoak egiten. Handik urte batzuetara, 1938an, Aintzina aldizkariaren bigarren aldiari eman zitoten hasiera hainbat idazleek, horien artean Mark Legaskek eta Piarres Xarritonek, bai eta Iratzederrek berak ere. Bertan publikatu zuen zenbait poema, baita *Le Courier de Bayonne* eta *El Día Hego Euskal Herriko* egunkarian.

1937an, Gernika bonbardatu zutenean, poema bat idatzi zuen eta *Euzko Deya*-ra bidali zuen: ezizen baten beharra ikusi zuen eta Iratzeder hautatu zuen. Orduetik hona ez du inoiz utzi. Diharce bere abizenarekin eginiko hitz-joko baten emaitza da Iratzeder.

Iratzederren poesian bi konstante agertzen dira, Euskal Herria eta Jainkoa, alegia. "Jainkoaren amodioz maite dut Euskal Herria. Bi amodio horiek bat eginik daude ene baitan", esan zuen askotan. Belokeko komentuan Ezkila argitartzea sortu zuen bai eta *Otoiz-lari* euskarazko aldizkaria ere. Aldizkari hori urte askoz plaza-ratu zuen, Corde Magnoirekin batera.

*Salmoak* obra nagusiaren egokitzale izan zen Iratzeder eta toki nagusia hartu du euskal liturgi berriaren hedapenean.

1953ko urtarilaren lehen euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1962ko utailaren 27an, berriz, euskaltzain oso, J. Elissalde nordez. 1963an, Beloken, sarrera hitzaldia egin zuen, *Belokeko euskal bidea* gaiari buruz. Urte bete geroago bere *Salmoak* argitaratu zituen. Adituen esanetan, Salmoen euskal itzulpenik onena da.

Kanta askoren letrak bereak izan dira eta Benito Lertxundi-ri esker ikasi ditugu bere poemak, baina ez da bere poeimi musikarantziaz jarri dien bakarra, izan ere, Aita Donostiak musikaturikoak ere baditu.

Lan ekoizle handia izan da Iratzeder, ia berrogei lan plaza-ratu ditu letrai dedikaturiko bere ibilbidean, eta sari eta aipamen garrantzitsuen jabe izan da.

Azkalari izan zen lehena, gero etoniko ziren *Itsasora* (1940), *Pindar eta Lano* (1938-1941 bitarteko poemak), *Tontoloiko hiru semeak* (1947), *Jarraik niri* (1947), *Eguerri* (1941) eta azkenak *Lur Sainduan hamar egunez beilari* (1990), *Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean* (1991), *Belokeko Abatexaren historia* (1993) eta *Bizi am gudaldia* (1997).

EZIEK "Itzultzaile ohorezko" izendatu zuten 1991n, eta Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zion 1994an.

Juan Ramon Madariaga

# Bestea da mundua

**J** oan Mari Irigoien (Alta, 1948) ingeniaria da ikasketaz eta idazlea lanbidez, hainbat eleberririk gogoangari ren egilea: *Oilarram promesa* (1973), *Polidroam hostoak* (1983), *Udazkenam balkoitik* (1987), *Babilonia* (1989), *Consummatum est* (1993), *Kalamidadeen liburua* (1996), *Lur bat haratago* (2000), *Ipuin batean bezala* (2002).

Azken urteak *Orbetarrek* proiektuaren egiturak maitzen eta atontzen eman ditu. Gorputz osoa liburukitan argitaratu da eta aleak eurari esperean jaioko dira. Lehena *Bestea* da mundua deitzen da eta duela gutxi aterata da kalera.



Personaien xehetasun psikologikoa azken muturreaino zaintzen eta aztertzen dituen nobela idatzi du Joan Mari Irigoienek, prosa jori, zehatz eta aberatsean. Aipaturiko protagonistez gainera, leku nabarmena hartuko dute Nazarioen sendeek, bereziki Beñardo bertsolari selebreak, Reginarean ahizpa Ernestinak, moja izan nahi eta komentuan hainbat istilu izango duenak, edo markean alaba bikiek: Natalia eta Natividad, biak ere mutil berberaz maitemindua.

Hona *Orbetarrek* sagaren lehen liburukia, familiaren hastapenak kontatzen dituen, eta beste zenbait istorio renaurreri izango dena.

# Euskararen izaera dinamikoa

**E** uskalkiak. *Euskararen dialektoak* liburua izan da EHUKo irakaslea den Koldo Zuazo euskaltzale porrokatuaren hogeituroko lanaren emaitza. Ikerketa-lan honetan XXI. mendeko euskalkien egoerari argazki bat aterata nahi izan dio egileak, hots, gaur egun bizirik dauden euskaranolakoa den, zertan den.

Ez da euskalki, azpieuskalki eta hizkera guztien aurkezpen zehatza eta sakona; euskalkietan barrietuta dauden ezaugarriak oinarrikoenak eta esanguratsuenak erakutsi nahi izan da lan honetan.

Mendebaleko euskarra, erdialdekoa, nafarra, nafarlapurta eta zuberoa, bost dira gaur egungo euskaraz bizirik dauden dialektoak eta horien barruan hamaika azpi-dialekto bereziki ditu egileak, eta tarteko hainbat hizkerareder.

Guztien gainean egiten du berba liburuan, hiztegi, ahoskera edota morfologiako ezaugarri nagusiak lutzatu.

Euskarra bitxia ere sartzera deliberatu du adituak: Amerikako euskarra. "Batetik, euskarra garbiena da, han egiten da hemen lehen egiten zuten euskarra. Antzinako euskarra entzuten ari zaren impresioa duzu. Hori bai, ingelesameriginakin".

Liburunak osagarri praktiko batekin dator, mapa-poster bat, geografik abiaturita hizkuntzen kokatze fisikoak ezagutzeko.

